



Konfinamenduak faktura garrantzitsua pasa dio munduko ekonomiari

Apirilean hasi ziren ezagutzen ekonomia eta arlo ekonomiko nagusietarako lehen hiruhilekoko BPGaren aurrerapen datuak. Kasu gehienetan, ohartarazten da eskainitako informazioa, datu batzuen faltan eta datu horiek lortzeko izan diren atzerapenen ondorioz, koiunturako adierazle nagusi batzuetarako egindako aurreikuspenetan oinarritzen dela. Zuhurtzia horrekin, INEk **Espainiako ekonomiarentzat hiruhileko arteko %5,2ko jaitsiera kalkulatu du, urte arteko tasan %4,1eko beherakada dena.** Enplegurako, erakunde horrek bi estatistika desberdin eman ditu: benetan lan egindako orduak eta lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Lehen kasuan, hiruhilekoen arteko jaitsiera %5,0 da; bigarreanean, berriz, %1,9koa baino ez da, lanaldiaren murrizketa nabarmena dela eta.

Bestalde, Eurostatek euroaren eremuko eta Europar Batasuneko zenbatespenak zabaldu ditu. Lehen kasuari dagokionez, **aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eremuaren jaitsiera %3,8 izan da, eta bigarreanean, berriz, %3,5.** Orobat, urte arteko tasak -%3,3 eta -%2,7 izan dira. Atlantikoaren beste aldean egoera ez da hobe. AEBetako azken urteetako hedapen ziklo luzeena hiruhileko arteko %4,8ko jaitsiera batekin amaitu da, nahiz eta urte arteko tasa oraindik pixka bat positiboa izan den (% 0,3).

BPGren lehen hiruhilekoko emaitza txar horiekin batera, **apirileko aurreikuspen nabarmen okerragoak etorri ziren.** Adierazle horietako bat da sentimendu ekonomikoaren indizea da, Europako Batzordeak argitaratzen duena. Bada, Eurogunearen kasuan, martxoan ikuspegi negatibo samarra izatetik (94,2) apirilean ia aurrekaririk gabeko ezkortasuna izatera igaro da (67,0). Ez da kontsolamendu handikoa jakitea 2009ko martxoan 65,5era iritsi zela. Eta bai, **inoiz erregistratu den datu-rik txarra da zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan eta finantza alorreko zerbitzuetan.** Herrialdeka aztertuta, okerragoa orokorra da, baina alde handia dago Frantziak lortutako balioaren (82,7) eta Erresuma Batuak lortutakoaren (62,4) artean. Bi mutur horien erdian daude Espainia (73,3) eta Alemania (72,1). PMI konposatuaren datuak ildo beretik doaz, eta bat-bateko eta orain arte ezezagunak ziren jaitsierak erregistratu dituzte serie historikoetan. Adibidez, euroaren eremuko adierazlea martxoaren 29,7tik apirilaren 13,5era jaitsi da.

EAEko ekonomiaz ezagutarazi den koiunturako informazioen artean, nabarmentzekoa da lehen hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren argitalpena. Eustaten arabera, **EAEko BPGa urte arteko %3,0 jaitsi zen, eta hiruhileko arteko %4,5 gutxitu zen aldi horretan.** Ekoizpen sektore guztiek jaitsiera nabarmena ezagutu zuten, nahiz eta haien kuantifikazioa ez den iritsiko bigarren estimaziora arte, hots, ekainaren hasiera arte. Enpleguari dagokionez, kontu ekonomikoen arabera, lanpostuen urte arteko jaitsiera %3,1 izan da, eta hiruhileko arteko tasa, berriz, %4,1. Datuak ez bairik gabe txarrak diren arren, **okerrena bigarren hiruhilekorako espero da.** Kontuan izan behar da osasun alarmaren egoerak eta konfinamendu neurriek lehen hiruhilekoaren hamabostaldi batean baino ez zutela eragin, baina, neurri handiagoan edo txikiagoan, bigarren hiruhileko osora hedatuko direla. Apirileko lan merkatuaren informazioak dagoeneko ematen ditu geldialdi ekonomikoaren intentsitateari buruzko argibideak. Alde batetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,5 egin du behera urtetik urtera, eta langabeziak, berriz, %19,9 gora.